

**2007/2008 IKASTURTEA  
OTSAIL-EKAINA**

**EUSKARA IKASTAROAK**

**ESKOLA ESKAERAK BIDERATZEKO  
JARRAIBIDEAK**

[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

**AGIRI HAU IVAPekin HIZKUNTZA PRESTAKUNTZARI BURUZKO  
LANKIDETZA-HITZARMENA<sup>1</sup> DUTEN ERAKUNDEEI ZUZENDUTA  
DAGO.**

---

<sup>1</sup> IVAPekiko lankidetzeta-hitzarmena honako arau honetan jasotzen da: 2005eko azaroaren 30eko AGINDUA, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. EHAA: 2005-12-19; 239. zenb.

## IKASTARO ESKAINTZA

Otsail-ekaina bitarteko ikastaroetan parte hartu nahi duenak modulu hauek eska ditzake:

| MODULUA<br>(ikastaro mota)               | OHARRAK  |
|--|--|
| <b>Barnetegia</b>                        | <b>Guztiak eska ditzakete</b> , bai ikasturte honetan lehenengo aldiz otsailean eskolatzen direnek, bai urriko eskolaldian hasitakoek. |
| Egunean<br><b>5 orduko</b><br>ikastaroak | <b>Urriari hasitakoek</b> otsailetik aurrera modulu hauetan jarraitu nahi badute <b>berriz egin behar dute eskaera</b> , nahitaez.     |
| Egunean<br><b>2 orduko</b><br>ikastaroak | <b>Bakar-bakarrik</b> , urritik 5 orduko ikastaroetan edo barnetegietan dabiltzanek eska ditzakete.                                    |

## ESKAERA EGITEKO PROZEDURA

- Eskaera egiteko inprimakia eskura dago interneteko helbide honetan:

[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

(Ezkerreko zutabearen: euskara > euskara ikastaroak > inprimakiak)

PDF formatuko fitxategi betegarria da: pantailan bertan bete eta gero inprimatu dezakezu.

- Eskaera behar bezala betetzen ez denean, atzerapenak sortzen dira, informazioa osatu edo zuzendu bitartean, eta ikaslea okerreko talde edo maila batean kokatu ere egin daiteke. Horregatik:
  - Inprimakian **toki eta modulu bakarra adierazi** behar da.
  - Ezinbestekoa da adieraztea ikastaroa **lanorduetan ala lanorduz kanpo** egingo den.
  - Eskabideetan eskatzailearen izenpea eta erakundearen **oniritzia** agertu beharko dira. Bestela, IVAPek baimenik ez dagoela jo eta atzera botako du eskaera.
  - **Aldi baterako langileek** ikastaroak dirauen bitartean erakundearekin lan-hitzarmena dutela egiaztatu beharko dute. Horretarako, eskaera orriaz gain, erakundeko pertsonaleko arduradunak sinatutako agiria aurkeztu behar da IVAPen, kontratuaren hasiera eta bukaera egunak zehaztuz. Agiri horrek eskaera egiteko epe barruan sinatuta egon behar du.
- **Eskaerak IVAPen aurkezteko epea:**
  - **Lanorduetako ikastaroak:** erakundeek **2007ko azaroaren 30a baino lehen** (hau barne) aurkeztu behar dituzte baimendutako eskabideak IVAPen.
  - **Lanorduz kanpoko ikastaroak:** erakundeek **abenduaren 3tik 21a bitartean** aurkeztu behar dituzte baimendutako eskabideak IVAPen.
- **Eskabideak aurkezteko helbidea:**

HAEE-IVAP

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

## IKASTAROEN ORDUTEGIAK, EGUTEGIAK ETA TOKIAK

### IVAPek osatutako taldeetan

Administrazioko langileekin osatutako taldeek honako egutegi eta ordutegiak izango dituzte:

- **Bost orduko ikastaroak**

| Tokia          | Ordutegia  | Egutegia    |
|----------------|------------|-------------|
| Bilbo/Donostia | 8:00-14:00 | otsailak 11 |
| Gasteiz        | 8:30-14:30 | ekainak 20  |

- **2 orduko ikastaroak** (soilik ikastaro trinko batetik aldatzen diren ikasleentzako)

| AM/PM       | Tokia                        | Ordutegia   | Egutegia                   |
|-------------|------------------------------|-------------|----------------------------|
| Goizez      | Bilbo<br>Donostia<br>Gasteiz | 8:00-10:00  | otsailak 11<br>maiatzak 30 |
| Arratsaldez | Bilbo / Donostia             | 15:30-17:30 | otsailak 11                |
|             | Gasteiz                      | 14:40-16:40 | maiatzak 29                |

### Barnetegietan

- Zornotzako Barnetegian edo Lazkaoko Maizpide Euskaltegian egin ahal izango dira. Egutegi hauek izango dira:

| Barnetegia | Egutegia                 |
|------------|--------------------------|
| Maizpide   | otsailak 4 – ekainak 20  |
| Zornotza   | otsailak 11 – ekainak 27 |

### Gainontzeko taldeetan

- Ikaslea matrikula orriaren bidez eskolatzen bada, berak **aukeratutako euskaltegiaren ordutegia eta egutegia** izango ditu.

## IKASTAROETARA JOATEKO BAIMENA ETA ORDU-KREDITUA

Eskatzaileak erakundeiko langile-arduradunaren baimena beharko du, eskaera onartua izateko. Baimena eskabidean agertuko da, sinaduraz eta zigiluaz egiaztatua.

Lanorduetako eta lanorduz kanpoko ikastaroei dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen Aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeetako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituenena. EHAA: 2005-12-19; 239. zenb.).

Ondorioz, euskara ikastaroa hasteko, beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea. Ordu-kreditua ikastaroa aurrera doala agortzen bada, langileak ikastaroa bukatu arte jarraitu ahal izango du.

Ordu-kreditua agortu ondoren, dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditu ez duen langileari ez zaio onartuko euskara ikasteko eskabide gehiago, harik eta gainditu beharreko hizkuntza-eskakizuna lortu arte.

## MAILAKETA PROBAK

- Langilea administrazioko talde batean eskolatzeko bada baina bere **hasiera maila ezezaguna bada**, IVAPek mailaketa proba egitera deituko du. Mailaketa probara administrazioko taldeetan sar daitezkeen langileak baino ez dira deituko, maila, lekua eta ordutegia kontuan harturik.
- Proba egitera deitua izan den **langilea nahitaez aurkeztu behar** da proba egitera. Aurkezten ez bada, horren arrazoa idatziz azaldu behar dio bere erakundeak IVAPi, proba egin osteko bi egun balioduneko epea iragan aurretik. Probara aurkeztu ez izana arrazoitu gabe gelditzen bada, **IVAPek bertan behera utziko du eskabidea**.

## IKASTALDEAK ANTOLATZEA

- Erakunde guztietako eskabideak jaso eta ikasle bakoitzaren maila zehaztu ondoren, IVAPek **administrazioko langileekin osatutako taldeak** antolatuko ditu. Talde horiek osatu ahal izateko, maila, toki eta ordutegi bereko ikasleak bilduko dira.
- Eskatutako mailagatik, tokiagatik edo ordutegiagatik **administrazioko taldeetan sartzerik ez duten langileen kasuan**, IVAPek matrikula orri bana bidaliko du euren erakundeetara. Erakundeak nori berea helaraziko dio.

## MATRIKULA ORRIEI BURUZKO ARAUAK

- Matrikula orria **agiri ofiziala** eta **pertsonala** da. Bertan ikaslearen izen-abizenak jasoko dira eta **ezin izango du beste inork erabili**.
- Matrikula orriaren bitartez, **interesatuak berak aukeratuko du** zein euskaltegi publiko edo pribatu homologatutan matrikulatu.
- Langileak egin duen matrikula IVAPek ordainduko du, betiere ondorengo **baldintza hauek** betetzen badira:
  - **Matrikula orria garaiz entregatzea:** ikastaroa hasten denerako matrikula orria euskaltegian aurkeztuta egon behar da.
  - **Gutxieneko trinkotasuna:** Lanorduetako ikastaroak gutxienez astean 8 ordukoak izan behar dira; lanorduz kanpokoak, ordea, astean 5 ordukoak. Alfabetatzeko eta EGako ikastaroak ordu gutxiagokoak izan daitezke.
  - **Gutxieneko iraupena:** ikasleak otsailetik ekainera arteko ikastaroa egin beharko du.
  - **Homologazioa:** ikastaroa HABEk homologatua izan behar da.
  - **Autoikaskuntza:** matrikula orriarekin **ezin da** autoikaskuntzako ikastarorik egin.
- Matrikula orriak baliorik izan dezan **IVAPen zigilu originala izan behar** du. Ondorioz, ez da fotokopiarik onartuko.
- Matrikula orria **erabiltzen ez bada, IVAPera itzuli egin behar** da. Matrikula orria itzultzea posible ez denean ere (apurtu egin delako, galdu egin delako...), erakundeak IVAPi jakinarazi egin behar dio langilea ez dela inon matrikulatuko.
- Langileak matrikula orria **euskaltegian entregatzen duen unean** gauzatzen da ikastaroaren matrikula eta, ondorio guztietarako, ikaslea euskaltegi horretan dago matrikulatuta.

## ASISTENTZIARI BURUZKO ARAUAK

### • Eskoletan hastea

Moduluz aldatzen diren ikasleen kasuan hasiera-datak aldatu egin daitezke modulu batetik bestera. Edozelan ere, hasiera-dataren erreferentea ikastaro trinkoa izango da beti, hau da:

- **Ikastaro trinkotik 2 ordukora** aldatzen diren ikasleek lehenik eta behin ikastaro trinkoa bukatu behar dute, eta ondoren aldatuko dira 2 orduko ikastarora.
- **2 orduko ikastarotik trinkora** aldatzen diren ikasleek ikastaro trinkoa hasi arte 2 orduko ikastaroan jarraituko dute.

### • Gutxieneko asistentzia

Euskara ikastaroetan diharduten ikasleek **gutxienez %80ko asistentzia** izan beharko dute, euskara ikastaroen aprobetxamendua bermatzeko eta horretarako langileen eskura jartzen diren giza-baliabideak eta diru-baliabideak optimizatzeko. Neurria **lanorduetan diharduten ikasle guztiei** aplikatuko zaie, taldean **emango diren eskola-orduen arabera**.

## ESKOLETARA JOATEARI UZTEA

- Eskoletan hasi ondoren ikastaroa behin betiko uztea erabakitzen badu, ikasleak **horren berri eman behar** die bere prestakuntzaz arduratzen diren eragileei:
  - **Euskaltegiari**, irakasleari esanda.
  - **Bere erakundeari**, dagokion pertsonaleko arduradunari jakinarazita.
  - **IVAPi**: Horretarako, “jakinarazpena: euskarazko eskoletara joateari uztea” izeneko inprimakia bete eta, bere pertsonaleko arduradunak izenpetuta, IVAPera bidali behar du.
- Kontuan har ezazue, eskola-uztea lehenbailehen jakinarazi behar dela, eragina baitu ordu-kredituen kontatze-sisteman. Hau da, eskola-uztea jakinarazten ez bada, jarraitzen dugu hasierako ordu-kredituari orduak kentzen .
- Inprimakia eskura egongo da honako helbide elektroniko honetan:

[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

(Ezkerreko zutabea: euskara > euskara ikastaroak > inprimakiak)

## DATUEN BABESA: LEGE OHARRA

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Lankidetzeta Hitzarmenaren ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

- Lankidetzeta Hitzarmenera biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua.

- Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere.
- Onartu egiten dute baita ere, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.).
- Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari –HABEri-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Ikasleei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako “Funtzionarioak euskalduntzea” izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia- San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.